



DESKRIBAPENA



Gure enpresaren logoa



OSASUN MENTALA
ESKUBIDE BAT DA!!!

Kuku enpresa



Gure enpresaren eslogana

Uribe Kosta BHIko 2. batxilergoko bost neska gara. Gizartearen baitan, ongizatea bermatzea izango litzateke gure helburua. Horretarako, Startinnova plataformarekin ikasi duguna lanean eta gure praktikan aplikatu dugu.

Lanaren aurretik, gazteok dugun beharraz ohartu ginen, hau da, “batxilergoa medikurik gabeko psikiatriko bihurtu dela uste dugu”. Ez gara soilik gazteontan zentratuko, baizik eta edozein pertsonen **osasun mentarentzat zuzenduriko proiektua** izango da **KUKU**.

Gure gizartean konturatu gara, psikologoaren lan kalitatea aldatu egiten dela eskaintzen duten zerbitzua publikoa edo pribatua izanda. Zerbitzu publikoaren hainbat kexa entzun eta bizi izan ditugu, izan ere, zerbitzu publikoa bezeroz beteta dago eta bertan eskaintzen den kalitatea ez da egokiena. Gainera, zerbitzu pribatuak ez dira oso ekonomikoak eta ondorioz, ez daude gizarte guztiaren esku. Orduan, lan honekin **gaixotasun mentalei aurre egiteko plataforma** bat sortu nahi dugu.